



AZKOITIA HEZKIDETZAREN BIDEAN

Kutxa Gipuzkoa Solidarioak
onartutako egitasmoa
Proyecto apoyado por
Kutxa Gipuzkoa Solidarioa





ONG · JESUITA · FUNDAZIOA

www.alboan.org

Bilbo

Aita Lojendio, 2- 2.
48008 Bilbo
944 151 135

Donostia

Andía, 3
20004 Donostia
943 275 173

Vitoria-Gasteiz

Estenaga Apezpikua, 1
01002 Vitoria-Gasteiz
945 202 676

Iruñea

Barañain Etorbidea, 2
31011 Iruñea
948 231 302



“Azkoitia hezkidetzaren bidean”: Azkoitiko Udal Haur, Nerabe eta Gazte Zerbitzuak, Floreaga ikastetxeak eta Xabier Munibe ikastolak hezkidetzaren bidean egindako prozesuak Alboan-ekin batera.

Egilea: Alboan: Libe Narvarte

Data: 2021eko martxo

Ilustrazioak: Ekilikua

Diseinu eta Maketazioa: Erreka Multimedia



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, orosik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

| AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. HEZKIDETZA AUTODIAGNOSTIKOAK ETA HEZKIDETZA PLANAK FLOREAGA, XABIER MUNIBE ETA AZKOITIKO HAUR, NERABE ETA GAZTERIA ZERBITZUETAN

3. ELKARRIZKETA

4. JARDUERA HEZKIDETZAILEAK

5. MATERIALAK: FAMILIA KITA ETA HEZKIDETZA LANTZEKO BESTE HAINBAT DOKUMENTU



SARRERA

Hezkidetzaren pertsonen garapen osoa bultzatzen duen hezkuntza-prozesua da, pertsona horiek edozein sexu-etakoa direla. Sexu-erengatiko desberdintasun mota guztiak zuzentzea eta ezabatzea bilatzen du beraz hezkidetzak, gazteek, mutil nahiz neska, benetako berdintasun giro batean eta sexuaren araberako inolako baldintza edo mugarik gabe libre garatzeko aukera izan dezaten¹.

Irakurtzen ari zaren txosten hau, Azkoitian hezkidetzaren sustatzeko martxan dauden hainbat prozesu, eragile, jarduerak eta hezkuntza materialak dituzte. Azkoitian bizi bazara eta bertako haur eta gazteen hezkuntza-erakundeekin egunean egon nahi baduzu, txosten hau zure interesakoa izango dela uste dugu. Azkoitian bizi ez bazara baina hezkidetzaren interesgune baduzu, txosten hau zuzentzeko ere bada, edukiek Azkoitiko mugak gainditzen baitituzte. Eta Azkoitiko herritar edota guraso bezala hezkidetzaren sustatu nahi duen pertsona bazara, zuzen espresuki pentsatu dugu dokumentu hau prestatzeko orduan.

Azkoitiak apostu egin eta egiten dio hezkidetzari. Horren isla da herriko **Hezkidetzaren Foroa**, herriko hezkidetzaren sakontzeko prozesuetan ari diren hainbat eragile biltzen dituen. **Daiteke Gizarte Aholkularitza** erakundeak koordinatzen du foroa eta bertan Udaletxeko Berdintasun, Gizarte Zerbitzu, Hezkuntza eta Gazteria saileko arduradunak; **Floreaga, Xabier Munibe**, Azkoitia BHI eta Bizilore eskoletako; Kale Hezitzaile eta **Alboan GKEeko** odestariak hartzen dute parte. Hilabetero biltzen da foroa, herri mailako hezkidetzaren jarduerak desberdinen elkartruke edota elkar sortzerako.

Azkoitia mailan beraz, hezkidetzaren aurrera egin eta sakontzeko, eragile ugariak batzen dituzte indarrak. Txosten honek ez ditu ez eragile guztiak ez eta prozesu edota jarduerak guztiak (ezta gehienak ere) biltzen ordea. Kutxa Fundazioak finantziatu eta

Alboan GGKEak aurrera eramandako proiektuan kokatzen da eta, eragile desberdinak aipatuko baditu ere, batez ere Alboan GGKEak lagundu dituen prozesuak izango dute protagonismoa, eta horien barruan, Azkoitiko Haur, Nerabe eta Gazte Zerbitzuetan aurrera eramaten diren prozesuak.

Hasteko Foreaga, Xabier Munibe eta Azkoitiko Haur, Nerabe eta Gazte Zerbitzuek aurrera eramaten duten hezkidetzaren autodiagnostiko eta hezkidetzaren planaren prozesua azalduko dugu laburki. Bigarrenik, Azkoitiko Haur, Nerabe eta Gazte Zerbitzuetako eta **Laia 3.0 Elkarteko** hezitzaileekin heziketa afektibo-sexualaren inguruan izandako solasa jasotzen dugu, hezkidetzaren modu integratuean lantzeko alderdi ezinbestekoa baita. Hirugarrenik herrian egindako bi jarduerak interesgarri aipatzen ditugu: Berdintasun sailak eta Alboanek antolatutako **Aldarte**ren OSGI gorrotei buruzko dokumentalaren emanaldia, eta **Sorkin**ek hezitzaileei zuzendutako “Bizitzari eusteko jakintzak” prestakuntza. Laugarren eta azken atalean Hezkidetzaren inguruan Alboanek sortutako hainbat material aurkezten dugu, bereziki Azkoitiko Haur, Nerabe eta Gazte Zerbitzu, Xabier Munibe eta Floreagan eskuragarri dauden “Famili kitak”, familia hezkidetzarekin baten bidean elkarrekin irakurtzeko eta jolasteko materialak eskeintzen dituenak, eta baita hezkidetzaren inguruan online topa ditzakegun hainbat baliabide.

*Espero dugu dokumentu
honek Azkoitiko herriak,
erakunde zein herritar,
hezkidetzaren alde egiten
duen lana ikustarazi,
zabalduta eta sakontzen
laguntzea.*



¹ Fernando G. Lucini.

HEZKIDETZA AUTODIAGNOSTIKOAK ETA HEZKIDETZA PLANAK FLOREAGA, XABIER MUNIBE ETA AZKOITIKO HAUR, NERABE ETA GAZTERIA ZERBITZUETAN

Badakigu matxismoa eta patriarkatua eskola eta hezkuntza formal zein ez formaleko praktikan sartu egiten dela, modu esplizituetan batzuetan, eta oharkabean pasatzen zaizkigun modu sotilagoetan gehienetan. Gauza logikoa da, hezkuntza gizartearen islada baita, eta gizartean agintzen duten balioen arabera antolatu ohi dira hezkuntza erakundeak. Hala ere, eskola eta hezkuntza erakunde asko, genero berdintasunaren aldeko konpromisoa hartuta, errealitate hori aldatu nahian dabilta. Erakunde hauei berdintasunaren bidean sakondu eta erakunde hezkidetzaille izan daitezen laguntzeko, lanketa sistematiko baterako prozesu eta erreminta batzuk eskaintzen ditu Alboan GGKEk.

Azkoitia mailan Floreaga eta Xabier Munibe eskolek egin dute autodiagnostiko bidea. Eskoletarako prestatutako materialaren balio garrantzitsua ikusita, hezkuntza eremu formaletik kanpo geratzen ziren hezkuntza ez formaleko hainbat erakunderentzat (denbora libreko taldeak, skaut taldeak eta gaztegunek besteak beste) prozesu hau habian jartzeko garrantzia ere ikusi zen. Behar horren harira erremintaren moldaketa egin da, hezkuntza ez formaleko ezaugarri bereziak kontutan hartuta. Azkoitiko Haur, Nerabe eta Gazte Zerbitzuak ([HZ GIZEKIMENAK SL](#) enpresak kudeatzen dituenak) moldaketa eta gero autodiagnostiko prozesuan parte hartu duten hezkuntza ez formaleko zerbitzu aintzindariak dira. Prozesu hau Azkoitiko Udaletxeak egin duen apostu baten parte da.

Formaleko arloan, badaramatzagu hiru ikasturte lanean Azkoitiko bi eskolekin: [Floreaga Ikastetxea](#) eta [Xabier Munibe Ikastola](#). Bi ikastetxe horiei lagundu diegu hezkidetzako autodiagnostikoak egiteko prozesuetan. Bileren eta topaketen bidez, datuen bilketan, behaketak egitean eta analisis egindako lanaren jarraipena egin da, horren ondoren ondorioak atera ditugu eta, azkenik, autodiagnostikoak egin dira. Hortik, hezkidetzeta-planetara eraman dira atera diren gomendioak eta proposamenak.



Futbolin partida bat Artxamendi topalekuan.

2020ko urrian argitaratu genuen ikerketa bat ikastetxeetan egin diren autodiagnostiko prozesuak azaltzeko. Euskadi mailan bagaude, Azkoitian bezala, ikastetxe gehiagorekin lanean beraien eskolak Hezkidetzailleak bihurtezko nahian eta Mondragon Unibertsitatearekin laguntzaz, horietako 7 ikastetxe eta gizarte hezkuntza programa baten prozesu hauei buruzko ondorioak eta gakoak bildu ditugu publikazio batean. Honen izenburua hau da: [Hezkidetzaz abian jarzteko prozesuak: gakoak eta ikaskizunak](#).

Ikerketa honetan parte hartu dute gurekin Hezkidetzaz lantzen 5 urte inguru daramatzaten zentroak eta atera ditugun ondorioak oso balagarriak dira beste eskolekin eta erakundeekin elkarbanatzeko. Publikazioan prozesuaren inguruan pistak ematen dira, nola izan behar den hasiera, abiadura, bukaera... talde eragileari buruz ere hitz egiten da, bere konposizioari buruz edo biltzeko behar den denboraren beharra, zuzendaritza-kideen parte hartzeari buruz ere komentarioak agertzen dira. Beste gai garrantzitsu bat da ze motako erresistentziak topatzen diren prozesu hauetan eta ze motako erantzunak ematen diren. Eta, besteak beste, etorkizunerako erronkei buruzko ondorioak ere elkarbanatzen dira. Publikazioa eskuragarri duzu [Edukulboan sarearen web gunean](#) atera diren ondorio guztiak irakurri ahal izateko.



"Altxa eskuak indarkeria Matxistaren aurka" dio Floreaga ikastetxeko ikasleek egindako kartelak.



"Zaintzak ez du generorik" aldarrikatu zuten Martxoak 8an Floreaga ikastetxeko ikasleek.

Azkoitiko haur, nerabe eta gazte zerbitzuetako autodiagnostiko prozesu

rako talde eragilea zerbitzuko hezitzaile gehienak batu ditu, benetako hezkuntza komunitate bat sortuz. Zerbitzu bakoitzeko (Abarketatxo Ludoteka, Artxamendi Topalekua eta Gazte Zerbitzu Bulegoa) hezitzaile guztiek hartu dute parte, baita zerbitzuko kordinatzaileak eta gazteria teknikariak ere. Tadeak prozesua honako arloetan zentratu zuten:

- Ekintzen egokitasuna egiten diren ekintzetan, emakume eta gizonen partaidetzaren parekotasuna aztertzeke.
- Ahozko komunikazioa (ludoteka eta topagunean), hizkuntza idatzia (ludoteka, topagune eta gazte zerbitzuak) eta kartelak eta dekorazioa (ludoteka, topagune eta gazte zerbitzuak).
- Espazioa eta guneak.

Arlo horietako bakoitza aztertzeke erraminta eta prozedura batzuk sortu ziren. Datu horiek 2019ko ikasturtean zehar jaso ziren, eta beraz momentu horretako errealitatea isladatzen dute. Datuak prozesatu eta analizatu eta gero, honako ondorioak nagusiak atera ziren:

- Umeak txikiak direnean, ez dira desberdintasunak nabaritzen neska eta mutilen artean. Adinak gora egin ahala, desberdintasunak nabariagoak dira.
- Desberdintasunak nabari dira hainbat jardueretan neska eta mutilen asistentzia mailari dagokionez. Neska zein mutilak dauden hainbat jardueretan, neska eta mutil taldeen artean jokaera desberdina somatzen da: txukun eta arretatsuagoa nesken kasuan, eta gauzak azkar bukatu eta disruptiboago izateko joera mutilen artean.
- Ahozko hizkuntzari dagokionez, ez da ikusten hizkuntzaren erabilpen sexistarik ezta tratu sexistarik hezitzaileen artean. Ume eta gazteen artean ordea irainak daude batzuetan, batez ere mutilak mutilei zuzenduta. Hezitzaileek mutilengana gehiago zuzentzen direla hauteman dute, baina batez ere bronka botatzeko.
- Idatzizko hizkuntzan ez da erabilpen sexistarik nabaritzen. Kanpo itxurari begira ordea, badira landu beharreko

hainbat ildo: adibidez argazkien erabilpenean ikuspuntu hezkidetzaillea nola landu ikusi behar da.

- Espazioaren erabilpenari dagokionez, oso nabarmena da mutilen espazioaren erabilpen zabalagoa, eta neska zein mutilen kokapen errepikakor bat. Esan daiteke neskek mutilek okupatu ohi dituzten espazioetatik autoeskluitzeko joera dutela, eta mutilek neskek okupatzen dituzten espazioetatik autoeskluitzeko joera. Erabiltzen den espazioari lotuta, esan daiteke orokorrean mutilek espazioa jarduera espansiboak egiteko erabiltzen dutela, eta neskek mugimendu gutxiago behar duten jardueretan murgiltzen direla.
- Gatazkak bi arrazoiengatik gertatzen dira: jarduera mota eta materialaren erabilera. Fisikoagoak diren jardueretan, bereziki baloia jolastuz egiten direnak, kolpe eta trabak sortzen dira (ostikadak, balonazoak etb.). Beste gatazka materialaren gaineko kompetentzia da eta normalean mutilen artean gertatzen da.





Sukaldaritza tailerra Artxamendi Topalekuan.

Autodiagnostikoak argi uzten du badirela hainbat arlo (bereziki jardueretako parte hartzea eta espazioaren erabilpena) zeinetan Gazte Zerbitzuetako ume eta gazteak generoen araberako jokabide normatiboekin bat egiten duten, hau da, “neska” eta “mutil” engandik gizartean espero ohi diren jokabideak hartzen dituzte: neskak txukunagoak dira eta mutilak mugituagoak; mutilek espazio zabalak okupatzen dituzte eta neskak “euren” txokoa, mutilak kirolean aritzen dira eta neskak hizketan etb.

Hezitzaileak jarrera hauekin erlazionatzen dira, eta batzuetan horiekin harremanduta dauden jarrerak hartzen dituzte:

adibidez mutilen parte-hartzea ahalbidetzeko lehiaketa planteamenduak erabiltzen dituzte, mutilei gehiago zuzentzen zaizkie euren jokaerek traba gehiago sortzen dituztelako etb. Barrera ikustezin batzuk daude: barneratuta dauzkagun genero rolekin harreman zuzenak dituztenak alegia. Modu honetan esan daiteke badagoela generoen araberako banaketa naturalizatu bat Ludoteka, Topaleku eta Gazte Zerbitzuetan.

Autodiagnostikoaren emaitzak kontutan hartuta, hezkidetzan plan bat antolatu da, momentu honetan martxan jartzen ari dena. Hezkidetzan planaren ildo nagusiak honakoak dira.

Ekintzetan neska eta mutilen partaidetzaren parekotasuna ahalbidetzeko:

- Jolas librea modu hezkidetzailan gidatzeko irizpide eta prozedurak sortu.

Komunikazio hezkidetzaille bat ahalbidetzeko:

- Ahozko komunikazioa errespetuzkoa eta hezkidetzaillea izan dadin irizpideak ezarri.
- Hezitzaileen “eredugarritasuna” erabiltzeko estrategia. Estereotipoak hausteko hezitzaileen eredu puskatzaileen erabilera.
- Neskeei zuzentzerakoan hitanoaren erabilera sustatu (noka mutilek neskei hitz egiten dietenean).

Sare sozial eta eduki audiobisual hezkidetzailleak ahalbidetzeko:

- Kultura digital proiektuan (Gaztematika) ikuspegi hezkidetzaillea txertatu metodologia eta edukietan.

- Sare sozialeko irudi eta edukietan estereotipoak ekiditeko irizpideen ezartzea.

Kartel eta dekorazio hezkidetzaillea ahalbidetzeko:

- Kartelak eta dekorazioan hezkidetzalla sustatu.
- Hilean behin ludoteka kanpoan jartzen den egunean, genero berdintasuna sustatu (jartzen diren apaingarrietan, mezuetan, materialetan etb.)
- Material hezkidetzailen artxiboa sortu, eta material zerrendak egin zerbitzu osoa elikatzeko.
- Epe zehatz batzuetan (Azaroa, martxoa, maiatza) sentsibilizazio kanpainak egin berdintasuna eta hezkidetzari lehentasuna emanez zerbitzuetan, baita kanpo itxuran ere.
- Haur eta gazteekin batera araudia landu zer, nola eta zenbat erabiltzen den horretan aukera berdintasuna sustatzeko.
- Familientzako zapatu bat hezkidetzara dedikatu.



Artxamendi Topalekuko txoko bat.

PROZESUA AZALTZEKO BIDEOAK

HEZKUNTZA FORMALEAN:



HEZKUNTZA EZ FORMALEAN:



ELKARRIZKETA: HEZIKETA AFEKTIBO-SEXUALA AZKOITIKO HAUR, NERABE ETA GAZTE ZERBITZUETAN

Azkoitiko Udal haur, nerabe eta gazte zerbitzuetan bat egiten duten Abarketatxo Ludotekako Alaitz eta Josu; Artxamendi Topalekuko Eneritz eta Patxi; Gazte Zerbitzu Bulegoko Miren eta koordinatzailea ere den Esther, eta Laia 3.0 Elkarteko Itsaso eta Ihintza hezitzaileekin bildu gara. Heziketa afektibo sexualaz aritu gara: zer den, noiz hasi beharko luken eta haur, nerabe eta gazte zerbitzuetatik egiten den lanketa aipatu digute, eta baita familiei zuzendutako aholkuak partekatu ere.

Zeintzuk dira Azkoitiko Topalekuan dauden heziketa sexual eta afektibo zerbitzuak?

(Itsaso) Laia 3.0 sexologia eta hezkidetzak elkartetik aholkularitza eta infomazio zerbitzua eskeintzen dugu bi astetik behin Abarketatxo ludotekan eta, batez ere, Artxamendi topalekuan. Kontsulta eta galdera derberdinak erantzuteaz gain, tailer bereziak prestatzen ditugu haur eta nerabeekin sexu heziketa eta indarkeriaren gaiak lantzeko. Batzuetan gai zehatzen lanketa eskatzen digute, aurrean adibidez neskek autodefentsa feminista tailerra eskatu dute.

(Esther) Hau guztia ikupegi orokor batetik dator. Laia 3.0rekin batez ere nerabeei zuzendutako jarduerak planteatu ditugu, baina ibilbidean zehar proposamena zabaltzen joan da, eta hezitzaileekin batera ikasturtean zehar 3 saio sortu dira ludotekarako, horietako bat gurasoei zuzenduta.

Heziketa afektibo-sexualaz ari garela, zertaz ari gara?

(Itsaso) Guk heziketa afektibo-sexuala egiten dugunean helburu bezala osasun sexuala lortzea dugu. OME-ak (Osasun Mundu Erakundeak) esaten du osasun sexuala dela "ekintza sexual eta erreproduktiboaz disfrutatzeko gaitasuna, beldurren, lotsa sentimenduen, errudun sentimenduen, oinarririk gabeko usteen edo harreman sexuala galarazten edo asaldatzen duten faktore psikologikoen gabezia" eta guk horrela ikusten

dugu sexu heziketa. Azken finean gozatzeko gaitasuna ekintza sexualaz, eta baita erreproduktiboaz, alde batera utzita beldurrak, lotsak, erruduntasunak eta mitoak, eta harreman sexualak galarazten edo oztopatzen edo hondatu ditzaketen faktore psikologikoak. Heziketa afektibo sexuala lantzen dugunean mila gauza desberdin lantzen ditugu: autoestimutik edo gorputzetik hasita, beste pertonekin izaten ditugun harremanetaraino. Eta hor tartean mila gauza sartzen dira.

Noiz hasi beharko luke beraz heziketa afektibo sexualak? Zentzu ebolutibo batean aipatu ditzakegu zeintzuk diren adin edo etapa bakoitzean gaia jorratzeko gakoak?

(Itsaso) Lehenengo galdetu beharko genuke zer den sexualitatea eta noiz hasten den. Sexualitatea gudan dago jaio baino lehen. Obuluak 6 aste dituenean gutxi gora behera hasten da prozesu sexual guztia. Izaki sexuatuak gara jaiotzen garenetik hiltzen garen arte. Heziketa sexuala askotan modu inkontziente batetan egiten dugu, eta esaten dugunarekin zein isiltzen dugunarekin ari gara mezuak bidaltzen. Gauza asko dira heziketa sexuala: jaioberri bati masajea egiten badiogu, harremantzen ikasten ari da, ikutua izaten eta besteak ikutzen, eta hori heziketa afektibo-sexuala da. Jaiotzatik hasten gara heziketa afektibo-sexualean hezitzen, modu inkontzientean bada ere. Eta modu inkontzientean gauza positiboak egin daitezke, masajea bezala, edo positiboak ez diren gauzak.

Etapa bakoitzean landu beharreko gaiak azaltzeko, garapen sexual guztia esplikatu beharko genuke. Garapen sexuala berez fase ezberdinetan banatzen da: lehenengoa 2 urteraino doa, bigarrena 2tik 6 urtetara, hirugarrena 6tik 10-12 urtetara, eta gero pubertaro eta nerabezaroen sartuko ginateteke. Etapa hauek guztiz desberdinak dira beraien artean eta eskatzen duten eskuhartzea ere desberdina da.

0-2 urte bitartean sexualidade sensomotoareaz hitz egiten dugu, eta hor garrantzitsuena sortzen ditugun atxikimendu ereduak dira eta autoezagutza eta autoestimulazioa. 2-6ra pasatzen bagara, esfinterra kontrolatzen ikasten dute, atxikimendu ereduak jeloskortasuna sortu daiteke, jakinmin sexuala pizten da desberdintasun anatomikoak ikusten dituztelako eta konturatzen direlako rol sexual ezberdinak daudela; bestalde identitate sexuala eta rol sexuala eskuratzen da beste gaitasun batzuk lortzen diren heinean. 6-9 urte bitartean aldaketa fisiko handirik ez dago baina genero rola indartzen dira eta heziketak izugarritzko garrantzia hartzen du: esponja batzuk dira eta gure eredu hezikidetzaila den ala ez isladatu egingo da.

Gero pubertaro eta nerabezarora iristen gara. Hor mila aldaketa ikusi ditzakegu eta mila erreakzio desberdin. Gainera etxetik ateratzen hasten dira, beste heldutze prozesu bat hasten da eta aldi berean munduarekiko banaketa antzeko bat bizitzen dute. 2 ordu pasa ditzakegu hemen honetaz hizketan... Dena den, esan beharra dago ere bakoitzak daukan garapen sexuala indibiduala eta propioa dela.

Genero rola aipatu dituzu: zer zerikusi du honek hezikidetzarekin eta berdintasunarekin? Zein puntutaraino da garrantzitsua hau ikuspuntu hezikidetzaila batetik lantzeko eta errespetuzko eta berdintasunezko harreman osasuntsuak lantzeko?

(Itsaso) Guztiz garrantzitsua da, gaur egun ezin duzu sexu heziketa landu ez baduzu ikuspegi feminista, edo genero perspektiba edo nahi duzun bezala deitu. Hau ez baduzu kontutan hartzen genero rol tradizionaletan sartzen zara, eta askotan indarkeria egoerak bultzatu ditzakezu.

Heziketa afektibo sexuala modu egokian garatuz gero indarkeria matxistaren prebentzio lana ere egiten ari gara?

(Itsaso) Noski. Azkenean gure buruarekin daukagun harremana oso garrantzitsua da besteekin harremantzeko momentuan. Adibidez: nik autoestimua oso baxua badut, ez badut nire burua eta nire gorputza maite, ispilura begiratzen naizen bakoitzean ikusten dudana ez badut gustoko, beste norbait nigan fijasen den momentuan irudituko zait zerbait majikoa ari dela gertatzen. Norbaitek esaten dit guapa naizela, nitaz pendiente dago, etb. Askoz errazago engantxatuko naiz harreman horretara autoestimua altua duen norbait baino. Dependentsiazko harreman bat sortzen badut, segun eta beste pertsona nolakoa den eta zein jarrerara dituen nirekiko, errazago izango da harreman toxiko batean sartzea. Eta hau adibide txiki bat besterik ez litzateke izango.

Imajinatzen dut honek ere zerikusia duela egiten ari zareten lanarekin, bakoitzaren ongizate pertsonalaren garatea bilatzen duena eta baita besteekin harreman osasuntsuak garatea ere. Zuen egunerokotasunean zer ikusten duzue Ludoteka eta Topalekuan?

(Patxi) 12-16 urte bitartean rol eta jarrerak asko aldatzen hasten dira, eta batzuetan batez ere mutilen aldetik jarrera matxistak eta baztertzailak identifikatu izan ditugu.

Eta horrelakoak identifikatzen dituzuen zuen eskuhartzea nolakoa da?

(Patxi) Estrategia bat modelajea da: ekintza batzuetan hezitzaileok modu kontziente batean rol puskatzaileak hartzen saiatzen gara, genero rola eta estereotipoak hausteko. Bigarrenik, jarrera desegokiak ematen direnean, berdintasunaren eta errespetuaren markoa indartzen dugu, eta horren barnean hausnarketa eta debateak egin izan ditugu. Bi baremo horiekin arratsalde bakoitzean gauza desberdinak lantzen dira segun eta zer gertatzen den, baina aukera berdintasuna eta errespetua beti bermatuz. Eta egoera baten bat handitzen bada, puntuala izatetik zabalagoa izatera edo errepikakorra izatera pasatzen bada adibidez, koordinatu egiten gara Laia 3.0ekin, eta egoerak eskatzen duen estrategia pentsatzen dugu elkarrekin eta martxan jarri. Estrategia bezala



Lahia 3.0, Abarketaxo Ludoteka eta Artxamendi Topalekuko hezitzaileak. Ezkerretik eskubira Eneritz, Alaitz, Patxi, Ihintza eta Josu.

beraz badago entzute bat, enpatia bat, irekitasun eta malgutasun bat, eta begirada bat: “hau horrela hemen ez”.

(Itsaso) Aurrekoarekin guztiz ados. Oso garrantzitsua da non kokatzen ditugun gazteentzako zerbitzuak. Gure informazio eta aholkularitza zerbitzua Topalekuan egongo ez balitz, ez litzateke inor etorriko. Udaletxean kokatzen baduzu horrelako zerbitzu bat oso zaila izango da gazteak hurbiltzea, ez baikaituzte aurretik ezagutzen, ez dago konfidantzako harreman bat, ez dute espazio seguru bezala identifikatzen. Topalekuan hori egina dago: gazteek espazio hori beraientzako espazio bezala ikusten dute, espazio

seguru bezala, eta horri esker dauka horrelako arrakasta gure zerbitzuak bertan.

(Esther) Horiek dira hezitzaileen eguneroko estrategiak: nerabeen ondoan egon, nerabeari akonpainamentu bat eman, enpatia emanez, entzumena emanez, aktiboki presente egonez... Ludotekako hezitzaileek antzeko moduan lantzen dute, baina beraien kasuan familiei arreta batzen zaie. Izan ere familiak izango dira kasu horretan haurrak eramatea ala ez eramatea erabakiko dutenak. Familiaren beharrak detektatzea eta behar horiei era desberdinetan erantzuna ematea, prebentzioa landu nahi badugu, ezinbestekoa da.

Zeintzuk dira gurasoen aldetik topatu dituzuen zalantza, galdera, muga edota beldur nagusiak?

(Itsaso) Sexualitatearekin lotuta beldur nagusia gurasoen aldetik gaur egun ere planifikatu gabeko haurdunaldi bat dela esango nuke. Arrazoia betikoa da: sexualitatea zakila baginan sartzearekin harremantzen badugu, gaixotasunak edo haurdunaldia izango dira beldur nagusia. Egia da ere bai kontsulta gehienak arazoak gertatzen direnean ematen direla, eta hor egoera desberdin asko topatu daitezke.

(Josu) Haurrak nerabezeroan sartzen direnean jada motxila bat daukate, balore batzuk barneratuta dauzkate, harreman mota batzuk. Pertsona egokiak izateko, motxilak balore onez bete behar ditugu. Azkenean prebentzioa hori da: 15 urterekin izango dituzten jarrerak aurretik ikusi eta landutakoaren araberakoak izango dira.

Eta Ludotekan familiekin hitz egiten iritxi al zaizkizue halako zalantza edo galderak? Identifikatu duzue familiengan agenda bereziren bat?

(Alaitz) Nik uste gurasoek barneratuta daukatela adin bat arte umeez ez dutela sexualitateaz hitz egingo, bakarrik nerabezeroan hasiko direla horri buruz galdezka. Guraso askok dute barneratuta bost urterekin ume batek ez duela sexualidadearekin zerikusia duen gaietaz galdetuko eta alde horretatik "lasai" geratzen dira.

(Esther) 2-3 edo 4-5 urterekin umea heriotzari buruz hitz egiten hasten denean, familia erlijiosoa bada eta bere errelatoa badu, badaki zer erantzun, baina landu gabe badauka ez daki zer esan "aitite hil da eta nora joan da" galderaren aurrean. Sexualidadearekin ere antzeko zerbait gertatzen dela uste dut: gurasoek segun eta ze lanketa eta ze hausnarketa egin duten, lasaitasunez eta argi hitz egiteko gaitasuna izango dute ala ez.

Zentzu horretan, gurasoei aholku pare bat eman beharko bazeniete, zeintzuk izango liriateke?

(Itsaso) Lehenengoa izango litzateke beti egia esatea eta istorioak ez asmatzea: 6 urterekin galdetzen badigute haurrak nola etortzen diren, ez hasi zikoina eta halako istorioekin.

Bigarrena, gauzak errazak jartzea seme-alabek sexualitateari buruz hitz egiten dutenean. Galdera zuzenak botatzen badituzte, erantzun zuzenak botatzea. Hirugarrena, gauzei dagokien izenaz deitzea, gaiaren inguruko nahasmenik ez sortzeko: alua, zakila, izen arrarorik asmatu gabe. Laugarrena, sexualitatearen gaia maitasuna, estimazioa eta eskuzabaltasunarekin harremantzea, erantzunkizuna inplikatzeko duen bizitzako alderdi bezala; hau da, sexualitatearen irudi pronografikorik ez ematea, baizik eta errealistagoa eta sanoagoa den irudi bat. Eta bosgarren aholkua, eta oso garrantzitsua, tabua helduok dugula gogoratzea, haurrek ez dute taburik.

(Esther) Nik guraso bezala gehitu egingo nioke umeez zerbait galdetzen badiete, kasu honetan sexuari lotuta, eta ez badakite edo ezin badute momentu horretan erantzun, esan dezatela "momentu honetan ez dakit nola egin, baina etxoin piska bat eta erantzungo dizut". Agian gurasoak momentu horretan ez daki nola jokatu, ez zuelako espero galdera bat 5 urterekin. Ixilik gelditu eta uxatu beharrean galdera hori, esan dezake momentu horretan ez dakiela ongi nola erantzun, baina jakingo duela eta erantzungo diola. Prozesu bat da eta nik hor lasaitasuna emango nieke gurasoei gomendio bezala.

(Josu) Naturaltasuna. Batzuetan ludotekan galdetzen dizkidaten gauza batzuetarako erantzuna badakit ez dutela ulertuko, beraien garapenerako lotura horiek egitea oso zaila delako. Baina ahal den sinpleena azaltzen saiatzen naiz beraien interes hori, eta adinean aurrera doazela gauzak lotzen hasiko dira. Adibidez "zergatik mundua ibiltzen da eguzkiaren inguruan", galderari modu sinple batean erantzuteko moduak bilatzen ditugu.

(Esther) Oso adibide ona da. Hor guraso batek agian ezjakintasuna sentituko luke, baina entziklopedia batera joango litzateke edo internetera eta jakin beharra asetuko luke eta kitto. Baina gai honek afektibitatearekin zerikusia duenez, hau da emozioekin, beste era batera inplikatzeko gara. Niri seme alabek zerbait galdetzen badirate eta lotsa sentitzen badute, jada ez da entziklopedia edo internetera joaten soluzionatzen den gauza bat, norberaren lanketa bat baizik. Eta niretzako hor dago lana.

JARDUERA HEZKIDETZAILEAK


2020ko abenduak 10ean, **Aldarteko “OSGI Gorroto Delituei begirada orokorra”** dokumentala ikuskatu zen 18:30etan Azkoitiko Elkarguneko Oteiza Aretoan.

Dokumentalak Guatemalako, Nikaraguako, Mexikoko, Honduraseko, Espainiako nahiz Euskadiko zenbait LGBTBI elkartetako ordezkarien testigantzak jasotzen ditu eta, horien bitartez, OSGI gorroto-delituen, hau da sexu orientazio eta genero identitateen ondorioz jazotzen diren gorroto delituen, begirada zabalago bat eskaintzen du. Era berean, esperientzia pertsonal zein kolektiboetan oinarritzen diren bizirauteko ekintzak, aurre egiteko mekanismoak eta eraldatzeko estrategiak azpimarratzen ditu dokumentalak.

Dokumentalaren aurkezpen eta sorkuntza prozesuaz gain, Rina Cabezak bideo bidez egindako testigantza entzuteko aukera izan zen, eta dokumentalaren eta bertako testigantza oinarri izanik, solasaldia egin zen.

Jardueran Azkoitiko Berdintasun Sailak, Aldartek eta Alboanek antolatu zuten.

Dokumentalaren bideoa:



Azkoitiko aurkezpeneko argazkia:

**OSGI gorroto-delituei
begirada orokorra**

Una mirada global
a los delitos de odio por
OSIG



Abenduak 10ean,
18:30etan,
Oteiza aretoa (Elkargunean),
Dokumentala eta eztabaida
Documental y coloquio

El 10 de diciembre,
A las 18:30,
en la sala Oteiza (Elkargunean)





2021eko Otsailak 17an Elkarguneko Oteiza Aretoan Azkoitiko hezitzaileei zuzendutako “bizitzari eusteko jakintzak” trebakuntza saioa egin zen **Sorkinen** eskutik.

Saioaren helburu nagusia bizitza erdigunean jartzen dituzten jakintzak nabarmentzea izan zen, hau da, pertsonak eta natura zaintzeko helburu nagusia duen ezagutzak, hezkuntza formalaren zein ez-formalaren esparruan lan egiteko tresna gisa. Horretarako, honako ildoak landu ziren besteak beste:

- “Zientzia moderna”ren ikuspegia zalantzan jarri eta ikuspegia zabaldu.
- Zientzia egin duten (eta egiten duten) hainbat emakumeren lorpenak eta egiteko moduak errebolorizatu.
- Bizitzari eusteko zereginak gure gizartean duten lekua aztertu.

Sorkinek sortutako baliabide eta material didaktikoak online daude.



MATERIALAK: FAMILIA KITA ETA HEZKIDETZA LANTZEKO BESTE HAINBAT DOKUMENTU

Alboan-etik hezkidetzan lan egitearen aldeko apustua egiten dugu, hezkuntza arloan dugun izateko arrazoiaren oinarri gisa; horregatik, hori garatu ahal izateko materialen ildo espezifiko bat daukagu. Hona hemen proposamen batzuk, publikoaren arabera sailkatuta.

ESKOLETAN, HEZKIDETZA FORMALA ARLOAN, AUTODIAGNOSTIKOAK EGITEKO TRESNAK ETA ERREMINTAK

Eskola Hezkidetzatik Birpentsatzea

Ikusezina agerian jartzeko, izendatzen ez dena izendatzeko eta begirada zorrozteko diagnosi metodologia bat aurkezten dizuegu; ikastetxean gertatzen diren fenomenoak, jardunbideak, elkarrekintzak, sinesmenak, aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzeko. Errealitatea «desnaturalizatzea» proposatzen dugu eta, gero, hezkuntza-komunitate osoak parte har dezakeen eraldaketei buruz galdetu, hausnartu eta proposamenak egitea eskola hezkidetzaille bat guztion artean eraikitzeko. Prozesua bideo honetan ere ezagutu dezakezue, [prestatu eta eman play-ri](#).

Escolan Hezkidetzaz Aztertze Gakoak

Liburuxka hau aurreko argitalpenaren ahizpa da. Bertan, eskola osatzen duten **elementu ezberdinen analisia egiteko tresnak** proposatzen dira (patio behaketa, curriculum eduki hezkidetzailleak, eskolako festen antolamendua, zaintzak eskolan bermatzea...). Prozesua bizi izan duten eskolek, beraien gakoak eta tresnak elkarbanatzen dizkizgute orrialde hauetan.

HEZKIDETZA HAUR ETA GAZTEEKIN LANTZEKO MATERIALAK

Hezkidetzaz begirada biozentriko batetik

Proposamen pedagogiko hau **Cantera** eta **Alboan** erakundeek elkarlanari esker argitaratu da, urteetan zehar elkarrekin egin duten lanari esker. Proposamenak bi ikuspegietatik edaten du; **hezkidetzaz eta hezkuntzaz biozentrikotik**.



HEZKIDETZA JARDUERAK GELETAN LAN EGITEKO

Ikasleekin lantzeko **proposamen didaktikoak**: Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi. Esteka hauetan bi unitate didaktiko deskargatu ditzakezu: bat **Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako** eta bestea **Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako**. Gainera, gure egoitzatik pasa zaitezke ikastetxeko gela eta korridoreak apaintzeko proposamena osatzen duten **posterrak eskatzera**.

FAMILIEKIN HEZKIDETZA LANTZEKO

Familiekin lan egiteko proposamenak: **hezkidetzako motxila ibiltaria**.

Familia hezkidetzako proposamenean batzeko materiala da. Bi motxila ditugu, bat **lehen hezkuntzarako** eta bestea **haur-hezkuntzarako**, etxean hezkidetzari lotutako gaiak lantzeko ipuinak eta jolasak dituztenak. Jar zaitez gurekin harremanetan zure motxilak zentroan izateko eta familiekin partekatu ahal izateko.

Hezkidetzan dugun proposamenez gehiago jakin nahi baduzu edo planteatutako baliabideren bat inplementatzera animatzen bazara, jar zaitez gurekin harremanetan hobeto lagundu ahal izateko: educacion@alboan.org.





Kutxa Gipuzkoa Solidarioak
onartutako egitasmoa

Proyecto apoyado por
Kutxa Gipuzkoa Solidarioa



ONG · JESUITA · FUNDAZIOA

www.edukalboan.org